

ESKU-HUSKA. Igandeko neurketetarako, gogotsu azaldu dira bai Imaz baita Agirre ere

Astebukaera honetan, Lau t'erdiko Txapelketako bost partida izango dira

Larunbatean, Patxi Ruiz eta Elkorro zein Medina eta Galarza V.a lehiatuko dira Bergaran

Igor Susaeta | DONOSTIA

Pasa den larunbatean eta igandean, EPELe antolatzen duen aurreneko Lau t'erdiko Txapelketa Nagusiko lehenbiziko partidak jokatu ziren. Gasteizko Ogetan ekin zitzaion aurtengo ekitaldiari. Horretan, Esainek 22-21 menperatu zuen Etxaniz. Igandean, ordea, bi partida izan ziren; aurrenekoan Naxeran (Errioxa), Armedarizek tanto bakar bategatik irabazi zion Rairi (22-21); Eibarko Astelenan, berriz, Nagorek ez zuen aparteko arazorik izan Xalari irabazteko (22-13).

Txapelketak aurrera jarraitzen du, eta, hala, heldu den astebukaeran lehen kanporaketei akabera emateko falta diren 5 norgehiagokak jokatu dira. Larunbatean, horietako hiru izango dira. Bergaran, Medina eta Galartza V.a lehiatuko dira alde batetik; ondoren, haatik, Patxi Ruiz eta Elkorro izango dira kaiolan neurtuko direnak. Balmasedan ere Tele 5ek zuzenean emango duen neurketa bat izango da; Olaizola II.a eta Fernando Goñik jokatu dute. Igandeko bi norgehiagoka gelditzen



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Agirrek, buruz-buru pilotari aipagarria dela erakutsi nahi du berriro

dira; Altsasun, Imaz segurarrak Ritxar Tirapu izango du arerio; Eibarren, berriz, Agirre eta Berasaluze VIII.a.

Egia esan, ezin da lehia bat bestearen gainetik jarri: guztiak dira garrantzitsuak. Dena dela, zurrenik bada pilotazaleak apur bat gehiago erakarriko dituen neurketa bat: Agirre eta Pablo Berasaluze aurrelariak Eibarko

Astelenako *Katedralean* arratsaldeko 17:00etatik aurrera jokatu dutena.

Imanol Agirrek hainbatetan erakutsi du kantxa osoan ere ongi moldatzen dela. Hala ere badu arantza bat hiltzaturik lau t'erdian: «Kantxa osoan, kaiolan baino emaitza hobeak lortu ditut; lau t'erdirako, alabaina, dohain hobeak ditut nire irudi-

ko». hala, lau t'erdian sekula «txapelketa onik» ez duela egin onartu du. Era berean, jakin badaki aurrelari gisa, «distantziara moldatzeko entrenamendu gutxiago» behar dutela. Igandean Eibarren uda bikaina burutu duen Pablo Berasaluze izango du aurkari: «Pablo sasoiko dago. Horregatik, bere jokua egiten saiatuko da; hau da, airez sartzen eta ahalik eta pilotakada gutxien ematen. Nik, ordea, beste era batera jokatu dut; lau t'erdiko marra bilatzen eta partida luze egiten saiatuko naiz; izan ere fisikoki oso ongi nago».

Xabier Imaz itxaropentsu

Imaz segurarrak ere, Tirapuren aurka jokatu du Altsasun txapelketa honetako estreinakoa: «Aurten, geroxeago hasiko nintzela uste nuen; lehengo urtean nahiko ondo aritu bainintzen». Haatik, badaki Tirapu orkoiendarrak aitzinetik bi aurrekanporaketa jokatu dituela. Hori, aurkariarentzat «ona» izan daitekeela uste du Imazek: «Txuriz edozein unetan janztea ondo datorkio edonori. Imaz segurarra «sakea ahalik eta egokien baliatzen» saiatuko da.

TXOKOAN

ERREMONTEA

Altuna I.ak eta Lizasok erraz asko menperatu zituzten atzo Zeberio II.a eta Etxabe

Nahiz eta markagailuak (33-40) partida orekatua izan zela adierazi, Altuna I.ak eta Lizasok ez zuten aparteko arazorik izan Zeberio II.a eta Etxabek osaturiko bikotea mendean hartzeko. Hala, iragan ostegunean pairaturako porrotari mendekua hartzea lortu zuten. Partida hasiera-hasieratik apurtu zen. Bikote garailea 3-13 aurreratu zen markagailuan. Lizaso doneztebarrak bikain aritu zen 15-29 tantora arte: ez Zeberio II.ak ezta Etxabek ere gainditu ezin izan zuten harresiaren gisara jardun zuen. Haatik, nekearen oinazeak nabaritzen hasi zen Lizaso. Egoera hori baliatuz, 3 eta 4 tantoetara jarri zen gorridun bikotea.

67 minutuko lehiaren ondoren, merezitako eta landutako garaipena erdietsi zuten Altuna I.a tolosarrak eta Iñaki Lizasok.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK. EUSKAL (UHARTE).

Juaristi-Barrenetxea II.a 24; Uterga-Amenabar 40.
Zeberio II.a-Etxabe 33; Altuna I.a-Lizasok 40.
Bereziartua-Urko 40; Agirresarobe-Mendizabal 20.
Zeberio III.a-Badiola 24; Matxin III.a-Ekiza 30.

KONTRAKANTXATIK

Juan Inazio Zulaika

Loteria eta abiadura handiko tren

teaz gain, arinegiak alegia, eta, gutxi baltz, to eskapada, pilota handalapuntaka frontisetik urrun. Jokoaren faltsifikazioaz mintzatu nintzaion. Ikusi nahiko nukela, esan nion, Formula 1eko Michel Schumaker pilotua balaztarik gabe eta zoru bustiaren gainean gidatzen.

Nonbait, nazkatu nuen nire adiskidea. *Old-timer* nostalgiko bat nintzela esan zidan. Eskuetan nuen mapa jada baliogabea zela, ikustatzen ari ginen lurralderako. Pilotariak kantxan galduta zeudela, eta? ... Nori axola zaio? Nor konturatzen da? Ni neu nenbela harmailetan galduta, denboraz kanpo. «Garaiak aldatu egin dituk, adiskide!» Ez zen berehala isildu Floridatik etorritako laguntzarra. Artearekin gauza bera gertatzen dela. Askok arte modernoa zaborra besterik ez dela diote klasikoaren aldean. Ezin dena ikuspegi berberaz begiratu biak. Arte klasikoak sortu zen garaian eta kondizio sozialetan, ez du ezer ikustekorik gurearekin. Gaur egun gizabanakoak askatasun osoz aukeratzen du gogokoen duena, baldin eta horrekin konformi-

tatea, hots, identitate bat lortzen badu. Joera dagoela gizartea osoaz hitz egiteko, atomizazioa nagusitu den denboran. Deskolokatuta nengoela ni eta ni bezala analisiak egiten dituztenek kontuan hartu gabe behialan sortutako arazoak jarriera diferentia eskatzen dutela. Mentalitate berriaz jokatu behar dugula. Gizarteaz baino gizabanakoen joera anitzez hitz egin behar denean.

Damutu nintzen eskapadaren gaia aipatzea. Ni bai ezin ihes ibili nintzela. Hura eman zidana! Utz ditzagun kontu horiek eskola handikoentzat, esan nion, bukatutzat emanez.

Aurrera jarraitzen du Txapelketak. Kanean dira txartel gutxien zituztenak, zorterik gabeko bikoteak: Baronio-Kevin; Konpa-Aranburu; Etchalus-Felix; Bereikua-Goitia eta Alberdi-Arriaga. Azken hauekin hartu genuen ustekabe galanta joan den igandean. Egiguren II.a eta Elizegiren aurka neurtu ziren. Irabazlea finalerdietarako sailkatzen zen; galtzailea, berriz, emaitzen mende. Lehengo tantotik Egiguren II.ak martxan

jarri zuen abiadura handiko tren. Bizitza jokoan bazukeen ez zuen amorru handiagorekin jokatu. Berehala heldu zen Elizegiren txanda. «Egur gehiago», esango zion aurrelariak, Marx anaien film hura gogora ekarriz, «gerra baita». Baita garrotea atera ere! Frontisaren laguntzaz hazi egin zen durangarra. Elizegiren aitak zesta-puntaren historian izan omen zuela eskuma bortitzenetakoa?... Semea ez da atzean geratu. Geneak eta jenioa plazaratu zituen Baldan. Kikildu zen Arriaga erauntsiaren aurrean. Galdu zen Zumaia ologarroa, Alberdi II.a, 56 metroko garajea. Ezin asma abiadura handiko tren haren nondik norakoei. Hamasei tantotan gelditu ziren iazko txapeldunak.

Egiguren eta Elizegik larunbatz geroztik Doppler efektuaren mende utzi zituzten: zarata pixkanaka hurbildu ahala handitzen joan da, osterapurka isilduz. Etzi Ricardo Alberdi eta Osa saiatuko dira deskarritlatzen A.H.T. Gau bertan, Goikoetxea eta Enbilek eginahalak egingo dituzte Arriaga eta Barrondo kanporatzen. Bi aurrelari gipuzkoarrek, Egiguren II.a eta Goikoetxeak, talka egiten badute igandean, finalean, Enbil eta Elizegiren laguntzaz, eztanda egin dezake frontisak. Hala bedi, ea behingoz urtzen den frontisari eman dioten berniz madarikatua.

Ostiral gaua zen. Munduko Zesta-Puntako jaialdi berri baten atarian ginen. Lehenengo partida hasi aurretik kiniela pare bat jokatzeko ziren Tolosa, Zumaia, Donostia eta Donibane Lohizunetik etorritako gazte afizionatu batzuk. Mutilak urduri zeudelako edo, Ander Bitoriak, Baldan monitore lanetan aritzen denak, zera esan zien: «lasai, mutilak, kiniela loteria baita». Jokoa baino zorteak zer ikusi gehiago duela, alegia. Neurri batean hala da, edozeinek irabaz baitezake; onenek, ordea, txartel gehiago izaten dituzte loteria horretan. Baita ondoren zetorren profesionalen arteko Munduko Txapelketan. T

Txapelketetan —Munduko izena baidarama, are gehiago— okasioa izaten da aspaldiko laguntzarrek agurtzeko. Horietako batekin topo egin nuen Baldan. Floridatik alde eginez gero, hogeitau urte pasa dira, elkar ikusi gabe. Elkarrekin ikusi genituen joan den ostiraleko bi neurketak. Partida hasi bezain pronto eta pilotak frontisean hartzen zuen efektuakikusirik, ezin ezkutatu nire haserre: «Ikusten al duk zer egin duten frontis noblea zenarekin»? ... Komentarioak garai bateko oroimenekin nahasten nizkion. Jokoaren ardatza, eraso lehendabizi, nagusitasuna gero, errematearekin bukatzen ziren sasoi gogoangarriak. Orain zer dela eta, pilotak golfekoan itxura iza-